

Kiyoshi Kurosawa

Bakardadearen mendekua

Japoniako zinema garaikideko zikloa

La venganza de la soledad.

Ciclo de cine contemporáneo japonés



©1997 Kadokawa Pictures

2025 **AZAROAREN 4TIK 20RA**
DEL 4 AL 20 DE NOVIEMBRE

Bilbao

Baterako antolatzailea / Coorganiza:

JAPAN FOUNDATION 
MADRID

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea

**AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO**

KIYOSHI KUROSAWA

BAKARDADEAREN MENDEKUA

Kiyoshi Kurosawa (Kobe, 1955) 1980ko hamarkadan hasi zen 8 mm-ko filmak egiten, Rikkyo-ko Unibertsitatean soziologia ikasten ari zela, Shigehiko Hasumi-ren babespean. Hamarkada horrexetan, bideoaren merkatura bideratutako ekoizpen txikiak ere zuzendu zituen, eta zuzendarien laguntzaile gisa aritu zen, besteak beste, Shinji Sômai-rekin. Ziurrena, Sômai-k eragina izan zuen Kurosawaren filmek duten baliabiderik ezagunenetako batean, hain zuzen, ikuspegi urrun batetik hartutako sekuentzia-plano luzeetan. Bestalde, prestakuntza-garai horretan ikasiko zuen baliabideak zuhertasunez erabiltzen eta bere filmek duten tonu errealista hartzen.

Kurosawa 1990eko hamarkadaren amaieran iritsi zen heldutasunera zuzendari gisa, 1997tik 2002ra hamabost film luze zuzendu baitzituen. Garai hartan, beldurrezko zineman klasikoak diren bi film zuzendu zituen, nazioartean ospea eman zioten *Cure* eta *Pulse/Kairo*. Milurteko aldaketaren ondorio diren film horiek J-Horror-ak izan zuen goraldi globalaren onura hartu zuten. Alabaina, zuzendariaren esanetan, ez zuen lana sortu generoari lotzen zaizkion arauen ikuspegitik. Horiek ez zuten mugatu, eta ez zituen kontuan hartu, etiketa guztiak gainditu zituen zinema hura egiteko orduan.

Badirudi ustekabez iritsi zela beldurrera, gizaki garaikidearen erretratu psikologiko bat egin nahian zebilela. Erretratu hori milurtekoaren amaieraren garaikidea da era berean, eta garai-aldaketaz eta denboren amaieraren mehatxuaz egiten duen ohartarazpenak erabat blaitzen ditu aldi horretako filmak. Film horiek aukera ematen digute bestelako zuzendari baten lana ezagutzeko, eta lan horiexek berreskuratu ditugu gure ziklorako.

Gainera, filmografiaren aldi honek aurreratu egiten du Kurosawak hurrengo hamarkadetan sortuko zuen zinema. Film horietan, harritzekoa bada ere, hogeita bost urte geroago hurbil-hurbil ditugun gaiak eta arazoak aurkitu ditzakegu: inkomunikazioa, bakartasuna eta enpatiarik eza —paradoxikoki teknologia berriek bultzatuak—, krisi ekologikoak, biralitatea, eta ez soilik pandemikoa, eta, batez ere, egungo gizartean gero eta hedatuago dagoen bakardadea. Bere zineman, badago beste osagai komun eta ezagun bat, egoera horien aurrean, hain zuzen, normaltasunez estalitako itxura baten atzean uzkurtuta egon ondoren lehertzen den indarkeria. Erreakzio hori bakardadearen mendeku gisa uler daiteke agian, horrela bere pertsonaiek alde batera uzten baitituzte itogarri zaizkien erantzukizunak.

Badirudi, begirada ameslari batez, Kurosawak joera horiek antzeman zituela milurtekoaren aldaketan, eta, jakin-minak akuilatuta, gehiago ikertu zuela horietaz eta pertsonaiez, zeintzuek, muturreko egoeretan, sarri egokiera apokaliptikoei egin behar dieten aurre. Bakartasun eta inkomunikazioaren mende egonik, protagonistak zaurgarriak dira izugarrikeriaren aurrean, eta, aldi berean, izugarrikeria horren egileak dira, beren anbiguotasun moralaren ondorioz.

Ziklo honetarako, gaur egun hain eskuragarria ez den bere filmografiaren zati horretako funtsezko zazpi film berreskuratu ditugu. Apaindura gutxiko bere estilo soilarekin, giro deserosoa, egoera surrealak eta poesia apokaliptikoa sortzen ditu, beldur kolektiborik garaikideenetara jotzeko.

Filmen aukeraketa *Cure (Kyua, 1997)* filmarekin abiatzen da, jakina. Azken hamarkadetako filmik kezkarrienetako bat da, eta zuzendariaren laguna eta kameraren aurreko alter ego-a den Kōji Yakusho du protagonista. *License to Live (Ningen gōkaku, 1998)* filma munduan dugun lekuaren bilaketari buruzko tragikomedia bat da. Bertan ere Yakushō agertzen da, Hidetoshi Nishijima (*Drive My Car*) gazte-gazte batekin lanean, eta *Charisma (Karisuma, 1999)* fabula ekologiko surrealeko protagonista da. Bitartean, Kurosawak *Eyes of the Spider (Kumo no hitomi, 1998)* eta *Serpent's Path (Hebi no michi, 1998)* lanak zuzendu zituen. Bi astetan filmatu zituen, oso aurrekontu mugatuarekin, eta bi filmak elkarren osagarri dira eta elkarrekin jarduten dute, zuzendariak mendekuari buruz egin zuen diptikoa osatzeko.

Zikloari amaiera emateko, thriller eta beldurretik erabat aldendutako bi film eskainiko ditugu. Haietan, baina, Kurosawak esperimentatzen jarraitu zuen, pertsonaiak muturreraino eramanez. *Barren Illusions (Ōinaru gen'ei, 1999)* filmak, agian hautaketa honetako kriptikoena denak, munduaren amaiera poetiko eta malenkoniatsu batera eramaten gaitu. Azkenik, *Bright Future (Akarui mirai, 2002)* filma askapen-istorio bat da, eta amorruek elkartutako bi pertsonaia gazte —Joe Odagiri eta Tadanobu Asano aktoreak— ditu protagonista.

Alejandro Rodríguez Medina

Fundación Japón Madrid-eko arte eta kulturako koordinatzaile burua

KIYOSHI KUROSAWA

LA VENGANZA DE LA SOLEDAD

Kiyoshi Kurosawa (Kobe, 1955) se inició en el rodaje de películas en 8 mm en los 80 durante sus estudios de sociología en la Universidad de Rikkyo bajo la tutela de Shigehiko Hasumi. Durante esa década también dirigiría pequeñas producciones destinadas al mercado del vídeo y trabajaría como ayudante de directores como Shinji Sômai, quien seguramente influiría en uno de los recursos más reconocibles del cine de Kurosawa, los largos planos secuencia desde un punto de vista distanciado. Una época de formación que probablemente también le aportaría la economía de medios y el tono realista de su cine.

Kurosawa alcanzaría la madurez como director a finales de la década de los 90, cuando protagonizó una explosión productiva dirigiendo quince largometrajes entre 1997 y 2002. En esa época dirigiría los dos clásicos del cine de terror que le darían fama internacional, *Cure* y *Pulse/Kairo*. Son películas fruto del cambio de milenio que se vieron beneficiadas por el boom global del J-Horror, pero que, en realidad, el director reconoce no haber creado desde la perspectiva de las reglas del género a las que se asocian, que no le limitaron y que no tuvo en cuenta a la hora de hacer un cine que rebosa todas las etiquetas.

Al terror parece llegar por accidente intentando hacer un retrato psicológico del ser humano contemporáneo. Este retrato es también contemporáneo del final del milenio, que impregna, con su aviso de cambio de época y de amenaza del final de los tiempos, las películas de este periodo. Estas películas que nos permitieron descubrir la obra de un director diferente son las que recuperamos en nuestro ciclo.

Un periodo de su filmografía que anticipa además el cine que Kurosawa crearía en las siguientes décadas, películas en las que sorprende reconocer veinticinco años después temas y problemas que nos son muy cercanos: la incomunicación, el aislamiento y la falta de empatía que paradójicamente han potenciado las nuevas tecnologías, las crisis ecológicas, la viralidad, no solo pandémica, y, sobre todo, la soledad cada vez más presente en las sociedades contemporáneas. En su cine hay otro elemento común y reconocible, ante estas circunstancias, la violencia que explota después de estar agazapada tras una fachada de normalidad. Quizá una reacción entendida como venganza de la soledad con la que sus personajes abandonan cualquier responsabilidad que les oprima.

Con una mirada visionaria, Kurosawa parece haber reconocido estas tendencias en el cambio de milenio, y su curiosidad le lleva a investigar más sobre ellas y sobre unos personajes enfrentados a condiciones extremas, a escenarios que, en muchas ocasiones, son apocalípticos. Unos protagonistas que, sometidos al aislamiento y la incomunicación, son vulnerables al horror, al mismo tiempo que, por su ambigüedad moral, artífices de este.

Para este ciclo, hemos recuperado siete títulos fundamentales de esa parte de su filmografía, tan poco accesible hoy, en los que con su estilo sobrio y austero crea una atmósfera de incomodidad, situaciones surreales y una poesía apocalíptica con los que apela a los miedos colectivos más contemporáneos.

La selección arranca, como no podía ser de otro modo, con *Cure (Kyua, 1997)*, una de las películas más inquietantes de las últimas décadas, protagonizada por Kōji Yakusho, amigo y alter ego del director ante la cámara. Yakushō también aparece en *License to Live (Ningen gōkaku, 1998)*, una tragicomedia sobre la búsqueda de nuestro lugar en el mundo en la que comparte elenco con un jovencísimo Hidetoshi Nishijima (*Drive My Car*), y protagoniza *Charisma (Karisuma, 1999)*, una surreal fábula ecológica. Entre medias, Kurosawa dirigirá *Eyes of the Spider (Kumo no hitomi, 1998)* y *Serpent's Path (Hebi no michi, 1998)*. Rodadas en dos semanas y con un limitadísimo presupuesto, estas dos películas se complementan y dialogan para completar su díptico sobre la venganza.

El ciclo se cierra con dos películas alejadas completamente del thriller y el terror, pero en las que Kurosawa continúa

experimentando con unos personajes al límite. *Barren Illusions (Ōinaru gen'ei, 1999)*, quizá la película más críptica de la selección, nos traslada a un poético y melancólico fin del mundo. Y finalizamos con *Bright Future (Akarui mirai, 2002)*, una historia de liberación protagonizada por dos jóvenes personajes unidos por la rabia interpretados por Joe Odagiri y Tadanobu Asano.

Alejandro Rodríguez Medina

Coordinador jefe de arte y cultura de la Fundación Japón Madrid



KIYOSHI KUROSAWA

Japoniako zinema garaikideko zikloa Ciclo de cine contemporáneo japonés

Kiyoshi Kurosawa thriller-aren maisua izango da Japoniako zinema garaikideko zikloaren hirugarren edizioko protagonista, Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaoko Zinematekan. Programa Japón Madrid Fundazioarekin lankidetzan antolatu da, eta aukera bikaina da zinemagilearen filmografia gozatzeko. Izan ere, zinema-aretoetan ia inoiz ez da ikusi, eta apenas dagoen streaming plataformetan.

Kiyoshi Kurosawa (Kobe, Japonia, 1955) 1980ko hamarkadan hasi zen 8 mm-ko filmak filmatzen, Rikkyoko Unibertsitatean soziologia ikasten ari zela, Shigehiko Hasumiren babespean. Hamarkadaren amaieran, *Sweet Home* (1989) estreinatu zuen, Nintendoren bideo-joko batean oinarritua eta orduko zuzendaririk arrakastatsuenetako batek, Jûzô Itamiki, ekoitzia. 'Survival horror' (biziraupen-beldurra) generoaren aitzindaritzat eta *Resident Evil* sagaren aurrekari zuzentzat hartzen da.

1990eko hamarkadan, zinemagileak nazioarteko ospea lortu zuen ziklo honi hasiera emango dion suspense psikologikoko *Cure* (*Kyua*, 1997) filmarekin. *License to Live* (*Ningen gôkaku*, 1998), *Charisma* (*Karisuma*, 1999), *Barren Illusions* (*Ôinaru gen'ei*, 1999) eta *Bright future* (*Akarui mirai*, 2002) dira bere sorkuntza ulertzeko eta hartaz gozatzeko aukeratutako beste lan batzuk. Baliabideen ekonomia, sekuentzia-plano luzeak, inkontzientearen labirintoekiko obsesioa, ambigüotasun moralak eta perbertsio garbia dira bere obraren bereizgarriak.

Zikloak barne hartzen ditu *Eyes of the Spider* (*Kumo No Hitomi*, 1998) eta *Serpent's Path* (*Hebi No Michi*, 1998), gizakiaren instinturik baxuenak agerian uzten dituzten thriller noir-ak.

El maestro del thriller Kiyoshi Kurosawa protagoniza la tercera parte del ciclo de cine contemporáneo japonés en la Zinemateka de Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao. El programa, organizado en colaboración con la Fundación Japón Madrid, es una oportunidad para disfrutar de la filmografía del cineasta, prácticamente inédita en las salas de cine y que apenas está presente en las plataformas de streaming.

Kiyoshi Kurosawa (Kobe, Japón, 1955) se inició en el rodaje de películas en 8 mm en los 80, durante sus estudios de sociología en la Universidad de Rikkyo y bajo la tutela de Shigehiko Hasumi. A finales de la década estrenó *Sweet Home* (1989), basada en un videojuego de Nintendo y producida por Jûzô Itami, uno de los directores más taquilleros el momento. Está considerada como la precursora del género 'survival horror' (horror de supervivencia) y el antecedente directo de la saga *Resident Evil*.

En los 90, el cineasta alcanzó el reconocimiento internacional con el filme de suspense psicológico *Cure* (*Kyua*, 1997) que abre el presente ciclo. *License to Live* (*Ningen gôkaku*, 1998), *Charisma* (*Karisuma*, 1999), *Barren Illusions* (*Ôinaru gen'ei*, 1999) y *Bright future* (*Akarui mirai*, 2002) son otros de los títulos seleccionados para entender y disfrutar de sus creaciones. La economía de medios, los largos planos secuencia o su obsesión por los laberintos del inconsciente, la ambigüedad moral y la perversión en estado más puro, definen su obra.

El ciclo incluye *Eyes of the Spider* (*Kumo No Hitomi*, 1998) y *Serpent's Path* (*Hebi No Michi*, 1998), un dúptico de thrillers noir que pone de manifiesto los instintos más bajos del ser humano.

EGUNA / DÍA	🕒	FILMA / PELÍCULA
4 AZAROA, ASTEARTEA NOVIEMBRE, MARTES	17:00	<i>Cure (Kyua)</i> 1997 Z/D: Kiyoshi Kurosawa 111'
4 AZAROA, ASTEARTEA NOVIEMBRE, MARTES	19:30	<i>License to Live (Ningen gōkaku)</i> 1998 Z/D: Kiyoshi Kurosawa 109'
6 AZAROA, OSTEGUNA NOVIEMBRE, JUEVES	17:00	<i>License to Live (Ningen gōkaku)</i> 1998 Z/D: Kiyoshi Kurosawa 109'
6 AZAROA, OSTEGUNA NOVIEMBRE, JUEVES	19:30	<i>Cure (Kyua)</i> 1997 Z/D: Kiyoshi Kurosawa 111'
11 AZAROA, ASTEARTEA NOVIEMBRE, MARTES	17:00 19:15	<i>Barren Illusions (Ōinaru gen'ei)</i> 1999 Z/D: Kiyoshi Kurosawa 118'
13 AZAROA, OSTEGUNA NOVIEMBRE, JUEVES	17:00	<i>Bright future (Akarui mirai)</i> 2002 Z/D: Kiyoshi Kurosawa 85'
13 AZAROA, OSTEGUNA NOVIEMBRE, JUEVES	19:30	<i>Charisma (Karisuma)</i> 1999 Z/D: Kiyoshi Kurosawa 83'
18 AZAROA, ASTEARTEA NOVIEMBRE, MARTES	17:00	<i>Eyes of the Spider (Kumo No Hitomi)</i> 1998 Z/D: Kiyoshi Kurosawa 115'
18 AZAROA, ASTEARTEA NOVIEMBRE, MARTES	19:30	<i>Serpent's Path (Hebi No Michi)</i> 1998 Z/D: Kiyoshi Kurosawa 103'
20 AZAROA, OSTEGUNA NOVIEMBRE, JUEVES	17:00	<i>Serpent's Path (Hebi No Michi)</i> 1998 Z/D: Kiyoshi Kurosawa 103'
20 AZAROA, OSTEGUNA NOVIEMBRE, JUEVES	19:30	<i>Eyes of the Spider (Kumo No Hitomi)</i> 1998 Z/D: Kiyoshi Kurosawa 115'

Eta gainera Mediateka BBK-n...

Zinematikaren programazioa Mediateka BBKra zabalduko da, ziklo honetako filmen inguruan. Gainera, espazio horretan zinemagile frantziarraren filmak eta liburuak kontsultatu eta eskatu ahal dira. Informazio gehiago 16. orrialdean.

Y además en la Mediateka BBK...

La programación de la Zinemateka se expande a la Mediateka BBK con actividades en torno a las películas de este ciclo. Además, en este espacio se pueden consultar y solicitar prestadas películas y libros relacionados con el programa. Más información en la página 16.

Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegia eta golem.es 5€ (4€ AZ Txartelarekin)
Astearte, +65 urte: 2€ (leihatilari bakarrik salgai)

Entradas: Taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en golem.es 5€ (4€ con Tarjeta AZ)
Martes, + 65 años: 2€ (venta solo en taquilla)

CURE (KYUA) 1997

© 1997 Kadokawa Pictures



111' • JBGA Japonia / VOSE Japonés

Z/D: Kiyoshi Kurosawa • **G:** Kiyoshi Kurosawa • **A/R:** Kōji Yakusho, Tsuyoshi Ujiki, Ana Nakagawa, Masato Hagiwara

Takabe polizia hilketa arraro batzuk ikertzen ari da. Biktimak arma zuriz egindako "x" itxurako zauri batekin agertzen dira, eta errudunak guztiz normalak dira, hilketa horiek egiteko inolako arrazoirik ez duten pertsonak. Takabe susmatzen hasi da zerbaitek eragina duela jendearengan eta hiltzera bultzatzen dituela.

El policía Takabe investiga unos extraños asesinatos. Las víctimas aparecen con una herida de arma blanca en forma de "x" y los culpables son personas totalmente normales sin ningún motivo para haber cometido el asesinato. Takabe empieza a sospechar que algo está influenciando a la gente para matar.

AZAROAK 4, ASTEARTEA
MARTES, 4 DE NOVIEMBRE
17:00

AZAROAK 6, OSTEAGUNA
JUEVES, 6 DE NOVIEMBRE
19:30

BA AL ZENEKIEN...

Martin Scorsesen ustez, Kiyoshi Kurosawaren lehen maisulana «bere filmik beldurgarriena» da. Argiaren, enkoadraketaren eta erritmoaren kontrolaren bidez, «enkoadraketaren izkina batean egindako keinurik txikiak hotzikara eragiten ditu».

SABÍAS QUE...

La primera obra maestra de Kiyoshi Kurosawa es, según Martin Scorsese, «su película más aterradora». Su control de la luz, el encuadre y el ritmo, hace que «el más mínimo gesto en una esquina del encuadre te provoquero un escalofrío».

LICENSE TO LIVE (NINGEN GŌKAKU) 1998



© 1999 Kadokawa Pictures

109' • JBGA Japonia / VOSE Japonés

Z/D: Kiyoshi Kurosawa • **G:** Kiyoshi Kurosawa • **A/R:** Kōji Yakusho, Hidetoshi Nishijima, Shun Sugata, Kumiko Aso

Istripu baten ondorioz hamar urtez koman egon ondoren, protagonista gaztea bat-batean esnatzen da ezagutzen zuenaz guztiz bestelakoa den mundu batean. Familia-loturak eta bizitza bera berreraikitzen saiatzen da, baina nekeza da ulertzea bere bizitza betiko aldatu dela.

Tras diez años en coma por un accidente, el joven protagonista despierta de pronto en un mundo totalmente distinto al que conocía. Trata de reconstruir los vínculos familiares y su propia vida, pero no es fácil entender que su existencia ha cambiado para siempre.

AZAROAK 4, ASTEARTEA
MARTES, 4 DE NOVIEMBRE
19:30

AZAROAK 6, OSTEGUNA
JUEVES, 6 DE NOVIEMBRE
17:00

BA AL ZENEKIEN...

Berlingo Zinemaldian proiektatutako film honekin, Kiyoshi Kurosawak atzean utzi zituen protagonista kriminalak zituen *yakuza eiga* generoa, eta dramen eta argumentu-arloko itxurazko biluztasunean sakondu zuen.

SABÍAS QUE...

Proyectada en el Festival de Cine de Berlín, con esta película Kiyoshi Kurosawa deja atrás las *yakuza eiga* con protagonistas criminales y profundiza en el drama y la aparente desnudez argumental.

BARREN ILLUSIONS (ÔINARU GEN'EI) 1999

© Euro Space, The Film School of Tokyo



118' • JBGA Japonia / VOSE Japonés

Z/D: Kiyoshi Kurosawa • **G:** Kiyoshi Kurosawa • **A/R:** Shinji Aoyama, Yôko Oguchi, Miako Tadano, Shinji Takeda

Haru (musika-ekoizlea) eta Michi (mezularitza-enpresa bateko langilea) gazteek ahalegina egiten dute maitasun-harremanari eusteko bizi diren gizarte distopikoan. Bertan, gizakiak gogaituta daude eta ez dira gai beren benetako sentimenduak erakusteko, indarkeriaren, eromenaren eta gorrotoaren bidez izan ezik.

Los jóvenes Haru (productor musical) y Michi (trabajadora en una empresa de mensajería) intentan sobrellevar una relación amorosa en la sociedad distópica en la que viven. En ella, los seres humanos son presa del hastío e incapaces de mostrar sus verdaderos sentimientos si no es por medio de la violencia, la locura y el odio.

AZAROAK 11, ASTEARTEA
MARTES, 11 DE NOVIEMBRE
17:00 / 19:15

BA AL ZENEKIEN...

Kritikaren ustez, *Barren Illusion* inflexio-puntua da Kurosawaren filmografian, protagonista gisa gazte moldakaitzen belaunaldi bat duen *Bright Future* (2003) lanaren aurretiazko saioa.

SABIÁS QUE...

La crítica considera *Barren Illusion* un punto de inflexión en la filmografía de Kurosawa, ensayo previo de *Bright Future* (2003), protagonizada por una generación de jóvenes inadaptados.

BRIGHT FUTURE (AKARUI MIRAI) 2002

© "bright future" FILM PARTNERS



85' • JBGA Japonia / VOSE Japonés

Z/D: Kiyoshi Kurosawa • **G:** Kiyoshi Kurosawa • **A/R:** Jô Odagiri, Tadanobu Asano, Tatsuya Fuji, Marumi Shiraishi

Mamoru misteriotsua bakarrik bizi da, gehiegi hurbiltzen diren guztiak ziztatzten dituzten koloretako marmoka pozoitsuekin. Leku berean lan egiten duen gazte bat, Yuji, ezegonkorra da emozionalki eta Mamorurekin liluratuta dago. Beraz, buruzagia hiltzea leporatuta atxilotzen dutenean, Yuji marmokez eta Mamoruren aitaz arduratuko da, eta horrek "begiak irekiko dizkio" mundu erreala ikusteko.

El enigmático Mamoru vive solo con sus venenosas medusas de colores, que pican a todo aquel que se acerca demasiado. Yuji, un joven emocionalmente inestable que trabaja en el mismo sitio se siente fascinado por Mamoru. Así que cuando este es arrestado, acusado de asesinar a su jefe, Yuji se encargará de las medusas y del padre de Mamoru, lo que le "abre sus ojos" al mundo real.

AZAROAK 13, OSTEGUNA
JUEVES, 13 DE NOVIEMBRE
17:00

BA AL ZENEKIEN...

Gai fantastikotik aldenduta, Kiyoshi Kurosawa thriller honekin lehiatu zen 2003ko Cannesko Zinemaldian Urrezko Palma eskuratzeko.

SABIÁS QUE...

Alejado de su temática fantástica, Kiyoshi Kurosawa compitió con este thriller por la Palma de Oro en el Festival de Cannes de 2003.

CHARISMA (KARISUMA) 1999

© 1999 Nikkatsu Corporation



83' • JBGA Japonia / VOSE Japonés

Z/D: Kiyoshi Kurosawa • **G:** Kiyoshi Kurosawa • **A/R:** Kōji Yakusho, Hiroyuki Ikeuchi, Ren Osugi, Yoriko Douguchi

Ero batek bahitua zuen politikari baten erreskatean esku hartu ondoren, huts egindako detektibe bat basoan barneratzen da. Bertan, oso pertsonaia berezi batzuk ezagutuko ditu, eta inguruko zuhaitz arraro baten etorkizunaz eztabaidatuko du haiekin.

Tras una complicada intervención en el rescate de un político que tenía como rehén un demente, un fracasado detective se adentra en el bosque, donde conocerá a unos personajes muy peculiares con los que debatirá el futuro de un extraño árbol de la zona.

AZAROAK 13, OSTEGUNA
JUEVES, 13 DE NOVIEMBRE
19:30

BA AL ZENEKIEN...

Hamarkada bat lehenago idatzitako film honen gidoiarekin, Kurosawak beka bat lortu zuen Robert Redforden Sundance Institutuan ikasteko.

SABIÁS QUE...

Con el guion de esta película, escrito una década antes, Kurosawa consiguió una beca para estudiar en el Instituto Sundance de Robert Redford.

EYES OF THE SPIDER (KUMO NO HITOMI) 1998



© 1998 Kadokawa Pictures

115' • JBGA Japonia / VOSE Japonés

Z/D: Kiyoshi Kurosawa • **G:** Kiyoshi Kurosawa, Yoichi Noshiyama

A/R: Sho Aikawa, Dankan, Ren Osugi, Sadao Abe, Shun Sugata

Nijima bulegariak alaba txikiaren bortxaketa eta hilketa basatiaren arduraduna aurkitzen du egun batean. Torturatu eta hil egiten du. Bizitza normalera itzuli, eta apatiko eta hutsik sentitzen da, harik eta sikarioen talde bat ezagutu arte.

Nijima es un oficinista que un día encuentra al responsable de la brutal violación y asesinato de su hija pequeña. Lo tortura y lo mata. Regresa a su vida normal sintiéndose apático y vacío, hasta que conoce a una banda de sicarios.

AZAROAK 18, ASTEARTEA
MARTES, 18 DE NOVIEMBRE
17:00

AZAROAK 20, OSTEAGUNA
JUEVES, 20 DE NOVIEMBRE
19:30

BA AL ZENEKIEN...

Kiyoshi Kurosawari eskaini zioten oso aurrekontu txikiarekin bi astean bi film egitea. Erronka onartu zuen, eta *Eyes of the Spider* eta *Serpent's Path* dira emaitza. “Mendekuaren diptikoa” deitutakoaren bi film horietan, Sho Aikawak Naomi Nijima izeneko pertsonaia antzeztu du, eta, izenaz gain, beste antzekotasun batzuk ere partekatzen dituzte.

SABIÁS QUE...

A Kiyoshi Kurosawa le ofrecieron hacer dos películas en dos semanas con muy poco presupuesto y aceptó el reto del que nacieron *Eyes of the Spider* y *Serpent's Path*. En ambas películas de este “díptico de la venganza” Sho Aikawa interpreta a un personaje llamado Naomi Nijima, compartiendo ciertas similitudes además del nombre.

SERPENT'S PATH (HEBI NO MICHI) 1998

© 1998 Kadokawa Pictures



103' • JBGA Japonia / VOSE Japonés

Z/D: Kiyoshi Kurosawa • **G:** Kiyoshi Kurosawa, Hiroshi Takahashi

A/R: Sho Aikawa, Teruyuki Kagawa, Yurei Yanagi, Shiro Shitamoto, Hua Rong Weng

Miyashita yakuza-ren (Teruyaki Kagawa) 8 urteko alaba bahitu eta hil egin dute, eta, horren ondoren, aita mendeku bila dabil. Pertsonaia misteriotsu bat (Sho Aikawa) elkartuko zaio, laguntzeko asmoz.

Después de que su hija de 8 años sea raptada y asesinada, el yakuza Miyashita (Teruyaki Kagawa) busca venganza. A él se le une un misterioso personaje (Sho Aikawa) con el fin de ayudarlo.

AZAROAK 18, ASTEARTEA
MARTES, 18 DE NOVIEMBRE
19:30

AZAROAK 20, OSTEAGUNA
JUEVES, 20 DE NOVIEMBRE
17:00

BA AL ZENEKIEN...

Eyes of the Spider eta *Serpent's Path* filmek osatzen duten *thriller noir* generoko diptikoak gizakiaren instinturik baxuenak uzten ditu agerian. Haurren hilketak dituzte biek abiaburu, eta gurasoen arima zaurituetan ezkututzen den ankerkeria erakutsi nahi dute.

SABÍAS QUE...

Eyes of the Spider y *Serpent's Path* conforman un díptico de *thrillers noir* que ponen de manifiesto los instintos más bajos del ser humano. Las dos parten de asesinatos infantiles para mostrar la atrocidad que se esconde en las almas heridas de sus padres.

Zinematekaren programazioa Mediateka BBK-ra zabaldu da, Japoniako zinema garaikideko zikloari buruzko filmak eta liburuak kontsultatu eta maileguan eskatu ahal izateko.

La programación de la Zinemateka se expande a la Mediateka BBK donde se pueden consultar y solicitar prestado películas y libros en torno al cine contemporáneo japonés.

FILMOGRAFIA / FILMOGRAFÍA

Kiyoshi Kurosawa.

[La mujer del espía \[Spy no tsuma\] \(2020\)](#)

Kiyoshi Kurosawa

[Cloud \(2024\)](#)

Kiyoshi Kurosawa

[Loft \[Shi no otome – Rofuto\] \(2005\)](#)

Hideo Nakata

[Dark Water \[Honogurai mizu no soko kara\] \(2002\)](#)

Hideo Nakata

[Juego Prohibido \[Kinjirareta asobi\] \(2023\)](#)

Hideo Nakata

[The ring \[Ringu\] \(1998\)](#)

John Carpenter

[El Príncipe de las Tinieblas \(1987\)](#)

John Carpenter

[La Niebla \(1980\)](#)

John Carpenter

[1997...rescate en Nueva York \(1981\)](#)

John Carpenter

[Están Vivos \(1988\)](#)

John Carpenter

[La Noche de Halloween \(1978\)](#)

Nagisa Ôshima

[Feliz Navidad, Mr. Lawrence \[Senjo no Merry Christmas\] \(1983\)](#)

Nagisa Oshima

[El entierro del Sol \[Taiyo no Hakaba\] \(1960\)](#)

Nagisa Oshima

[El imperio de los sentidos \[Ai no korîda\] \(1976\)](#)

Shôhei Imamura

[Lluvia negra \[Kuroi ame\] \(1989\)](#)

Takashi Miike

[First love \[Hatsukoi\] \(2019\)](#)

Takashi Shimizu

[Immersion \(2023\)](#)

Takashi Shimizu

[Melodía Asesina \[Minna no Uta\] \(2023\)](#)

Terence Fisher

[Drácula, príncipe de las tinieblas \(1966\)](#)

Terence Fisher

[La novia del diablo \(1968\)](#)

Tobe Hooper

[La Casa de los Horrores \(1981\)](#)

Tobe Hooper

[Poltergeist \(1982\)](#)

Yasujiirô Ozu

[Buenos días \[Ohayô\] \(1959\)](#)

Yasujiirô Ozu

[He nacido, pero... \(Y sin embargo hemos nacido\) \[Otona no miru ehon - Umarete wa mita keredo\] \(1932\)](#)

Yasujiirô Ozu

[Primavera tardía \[Banshun\] \(1949\)](#)

BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA

Corral, Juan M.

John Carpenter: el maestro del terror

Dolmen, 2019

Dios, José Ángel de

Tokyo connection: una mirada al cine japonés

T&B Editores, 2014

Galbraith, Stuart

Cine Japonés

Taschen, 2009

Malpartida Tirado, Rafael

Espectros de cine en Japón: entre la literatura, la leyenda

Satori, 2014

Míguez Santa Cruz, Antonio

Kaidan: tradición del terror en Japón

Berenice, 2021

Provitina, Gustavo

Nouvelle vague: bajo el signo de Lumière

La Marca, 2021

Richie, Donald

Cien años de cine japonés

Jaguar, 2004

Russell, Catherine

Classical Japanese cinema revisited

Continuum, 2011

Santos, Antonio

Yasujiro Ozú: elogio del silencio

Cátedra, 2005

Schrader, Paul

El estilo trascendental en el cine: Ozu, Bresson, Dreyer

JC, 1999

Shozo, Ichiyama

Nuevo cine independiente japonés: 2000-2015

Donostia Zinemaldia, 2015

Usón Forniés, Fernando

Nouvelle Vague: la ola que no cesa

Desfiladero, 2020

VVAA

Japón en negro

Donostia Zinemaldia, 2008

White, Edward

Las doce vidas de Alfred Hitchcock: anatomía del maestro del suspense

Alianza, 2022

JARDUERAK / ACTIVIDADES

Japoniar zinematik tarte berezia izango du Mediatekan hilero antolatzen den **Zinema-elkarriketak** zikloen saioretan ere.

**ZINEMA-ELKARRIZKETAK.
ARGIAK, KAMERA... EKIN!**

AZAROAK 25, ASTEARTEA

Kiyoshi Kurosawa

Wife of a Spy / La mujer del espía (2020)

18:30-19:30 / Mediateka BBK: TK101

El cine japonés está también presente en la programación de los **Diálogos de Cine** que tienen lugar mensualmente en la Mediateka

**DIÁLOGOS DE CINE.
LUCES, CÁMARA ¡ACCIÓN!**

MARTES, 25 DE NOVIEMBRE

Kiyoshi Kurosawa

Wife of a Spy / La mujer del espía (2020)

18:30-19:30 / Mediateka BBK: TK101

LABURDURAK

A: Aktoreak

G: Gidoia

Z: Zuzendaritza

JBGA: Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz azpituatua

ABREVIATURAS

R: Reparto

G: Guion

D: Dirección

VOSE: Versión original con subtítulos en castellano

SARRERAK

5€ (4€ AZ Txartelarekin)

Zinemako txarteldegian eta golem.es

Asteartea, +65 urte: 2€

(leihatilan bakarrik salgai)

ENTRADAS

5€ (4€ Con Tarjeta AZ)

Taquillas del cine y golem.es

Martes, + 65 años: 2€

(venta solo en taquilla)

-
- Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea.
 - Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke. Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok beretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, aldezturik azkunazentroa.eus-en jakinarazita.
 - Programa hau etxera eramatea gomendatzen dizugu.
 - Gure programazioari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Azkuna Zentroarekin.

- Abrimos la sala 15 minutos antes de la proyección de la película. Te recomendamos que acudas con unos minutos de antelación.
- La programación de Zinemateka está sujeta a cambios de última hora. En caso de fuerza mayor, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao se reserva el derecho a cancelar, modificar o aplazar las actividades programadas, previa comunicación pública en azkunazentroa.eus
- Te recomendamos que te lleves a casa este programa.
- Si quieres recibir información de nuestra programación comunícate con Azkuna Zentroa.

+ info: azkunazentroa.eus



azkunazentroa.eus
info@azkunazentroa.eus
PLAZA ARRIQUIBAR, 4 -48010 BILBAO
944 014 014





Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea